




LIBURUA



'Roke izeneko komuna'

Nikolas aitonaren baserrian dago oporrak igarotzen. Aspertua dago. Behin ganbarara igo, eta hitz egiten dakien Roke komunarekin topatuko da.

Antton Dueso

Argitaletxea. ■ Aizkorri

LIBURUA



'Johanes, Bargetako aztia'

Harry Potter baino askoz lehenago azti ugari ibili ziren magia eskoletan. Johanes Bargetako aztia izan zen Euskal Herrian ezagunenetarikoa. Johanesi buruzko abenturak biltzen dira liburuan.

Fultxo Crespo, Mikel Fernandez eta Josu Jimenez

Argitaletxea. ■ Txalaparta

BIDEO JOKOAK

'Cycling Manager 2'



Jokoan dauden 60 talde profesionaletatik bat hautatu, eta lasterketak garaitzea izango da zure zeregina. Helmugara iritsi aurretik, ordea, hamaika erabaki hartu beharko dituzu.

PCrentzat


Argitaletxea. ■ Friendware

'Papyrus, horse racing'

Setheko apaizak Teti bahitu du. Su-geen Jainkoari Teti eskaintzea da bere asmoa. Faraioak Papyrusi laguntza eskatzen dio, Teti aska dezan. Apaizak, ordea, ez du askatu nahi. Hala, Papyrusek zaldi lasterketa baterako erronka egiten dio apaizari. Nork garaituko ote du?

PCrentzat

Argitaletxea. ■ Virgin



irudietan



Kirola

Armstrong Tourreko garaile, laugarren urtez jarraian

Lance Armstrong US Postal taldeko txirrindulari estatubatuarra irabazi zuen, laugarrengoz, Frantziako Tourra. Joseba Belokirentzat izan zen bigarren postua, zazpi minutu eta hamazazpi segundotara. Once-Eroski taldeko txirrindularia da Beloki, eta azken bi urteetan ere emaitza bikainak lortu ditu Tourrean, bi bider hirugarren postua eskuratu baitu. Hirugarren lekuan, berriz, Lampreko Raimondas Rumsas geratu da.

Natura

Jolastu eta jolastu, nekatu arte!

Kandula zortzi hilabeteko elefante asiarra da, eta Washingtongo zoologikoan bizi da. Oso gustuko du bere baloiarekin jolastea. Azken egun hauetan bero izugarria egin du zoologikoan, 35 gradutik gora. Beroak, ordea, ez du Kandula beldurtzen, izerditan blai egon arren, nekatu arte baloiari ostikoka jarraitzeko prest baitago elefantea.



Robyn Beck / EPA